

AITONEN ETXEA

EHULKUren aholkuak

Gure aitonen denboran...

  
Universidad  
del País Vasco Euskal Herriko  
Unibertsitatea

Euskara Zerbitzua



*Aitonen etxea?*

*Aitona-amonen etxea?*

*Erretirodunen etxea?*

Bi sexuetako senitartekoak aipatzeko, badira forma bakun batzuk:

Ohitura hori gure gurasoekin ikasi genuen.



*“Zazpi senideko familia batean arotza zen gure aita...”*

Hamahiru **haurridetan** zaharrena zen Katalin.

<sup>1</sup>Senide, haurride = anai-arrebetako bakoitza.

Dena dela, honako hitz elkartu hauek erabiltzen dira eskuarki sexu bietako senitartekoak aipatu nahi badira:

- aitona-amonak
- aita-amak
- seme-alabak
- anai-arrebak
- neba-arrebak *Bizk.*
- osaba-izebak
- lehengusu-lehengusinak *Bizk.*
- aita-amaginarrebak
- aita-ama pontekoak
- andre-gizonak
- senar-emazteak
- ...

Guztiz baztertzea da, bi sexuetako senitartekoei erreferentzia egiten zaienean, maskulinoa soilik erabiltzea.

D ereduan matrikula itzazue  
seme-alabak.

Iragarki batean: **#(...) matrikula itzazue semeak.**

Hemengo elikagaiak erabiltzeak gure  
seme-alabentzako lanpostuak ekarriko  
ditu gerora.

Irratiko programa batean: **#(...) gure semeentzako lanpostuak...**

### OHARRA

Burkotxo edo kuxinak (#) adierazten du esaldia ez dela  
pragmatikoki egokia, gramatikala izan arren.

«Anai-arrebak, ez, otoi, pentsa  
neure gustura nagoenik,  
poz gehiago izango nuen  
albotik beha egonik.

Zuek ez bazarete kontentu  
errua ez daukat ez nik,  
txistuak jo dituzue baina  
maite zaituztet oraindik.»

Xalbador, Anoetako pilotalekuan, 1967an

Kontestu berean: **#Anaiak, ez, otoi, pentsa...**

Orobat, generoa duten izenen plurala edo generikoa adierazi nahi bada:

Aurten, laurogeita hamar neska-mutil ditut gelan.

Unescok adierazi duenez, 18 milioi maisu-maistra gehiago beharko dira, 2015. urterako, lehen hezkuntzako premiei erantzuteko mundu osoan.

Erriberrin duzu Nafarroako errege-erreginen jauregi ederrenetariko bat.

